



TXAN  
TXA  
RREKA  
Gaztetxea

# MEMORIA

Txantxarreka Gaztetxea  
2013.09 - 2014.09



## 1. SARRERA

.....

5

## 2. EGINDAKOAK

.....

6

## 3. BALORAZIOA

.....

32

## 4. ERANSKINAK

.....

34







## 1. SARRERA

Txantxarreka Donostiako Antigua auzoan kokatzen den eraikin bat da, Villa Alegria proiektuaren baitan sortutakoa. Eraikin honetan auzoko eragile zein norbanakoek euren proposamenak garatzeko aukera dute era autogestionatu, ireki eta parte hartzailean.

Proiektu hau, Donostiako udalak, Villa Alegria Gazte Asanblada elkarteari egindako lagapenaren baitan garatutakoa da. Lagapen honen aurretik aurreprozesu eta prozesu esanguratsuak eman ziren auzoan.

Aurreprozesuan, Antiguoko Gazteek, udal teknikariek eta Elhuyarreko aholkulari batek sortutako talde motoreak ondoren burutuko zen prozesuaren oinarriak finkatu zituzten. Ondoren, prozesua martxan jarri zen eta talde zabala hilabeteen behin hasi zen biltzen, talde motoreak bilera hauek prestatzeko aste-bete lehenago gelditzen zelarik. Lau bilera burutu ziren etxean bertan, Antiguako gazte guztiei irekiak eta bertan 20-50 gazte inguru bildu ziren. Hau honela, proiektu bat sortu zen gaztetxean garatuko ziren ekintzen helburuak, balioak, planteamendu proposamenak eta antolakuntza eredia islatzen zelarik. Bilera hauen ondoren, auzolana burutu zen etxea txukun utzi eta partaideek hau beraiena sentiarazteko asmoz.

Prozesu honen ondoren, 2013ko irailean eraikineko giltzak Villa Alegria Gazte Asanblada elkarteari eman zitzaizkion eta orduan hasi zen gaur Txantxarreka denaren ibilbidea. Urte-

bete daramagu auzoko aisialdiari proposamen alternatiboa eskaintzen baita auzoko eragile eta norbanako desberdinen elkargune izaten.

Txantxarrekaren funtzionamendua ondorengoa da; Lau lan-talde ditugu gaztetxearen adar direnak, komunikazioa, finantziarioa, mantenimendua eta antolakuntza. Lan talde bakoitzak bere lan esparrua du eta hilabeteen bi aldiz koordinazio bilera bat burutzen da lan talde bakoitzeko bi partaide eta baita gaztetxean lanean aritzen diren eragiletako partaide banarekin. Bertan, egunerokotasunean aurrera egiteko beharrezkoak diren erabakiak hartu eta hilabeteko ekintzak koordinatzen dira. Honetaz gain, hilabeteen behin bilera irekiak burutzen dira, hauek helburu desberdinak dituztelarik,

-Koordinazio bileretan garatutako gaiak komentatu eta eztabaidatzea.

-Proposamen berriak jaso eta hauek burutu ahal izateko bideak zabaltzea.

-Gaztetxearen egunerokotasunaren inguruko gaiak eztabaidatu eta jende guztiari zabaltzea, sortzen diren arazoak era kolektibo eta bateratu batean konpontzeko asmoz.

Gainera, proposamen bat izan eta bilera hauetara gerturatu ezin denarentzat emaila dugu zabalik, antolakuntza lan taldeak eramaten du email hau.

## 2. EGINDAKOAK

### IRAILA

**Irailaren 5** 17:30an Bizikletak konpontzeko Tailerra

**Irailaren 6** 17:00tan Bilera Zabala

**Irailaren 11** 17:30an Salvador Allenderen inguruko dokumentala.

**Irailaren 13** Kalejira Egiara elektrotxarangarekin (Porrontxoak)

**Irailaren 19** 19:00etan Kalejira trikitilariekin aulariotik gaztetxera unibertsitateko gazteek gaztetxea ezagut dezaten. Bertan pintxo potea.

**Irailaren 23** 19:00etan baratza egiten hasteko lehenengo bilera

**Irailaren 24** 18:00etan gaztetxean parte hartu edo zerbait antolatu nahi duten unibertsitateko gazteekin bilera

**Irailaren 25** 19:00etan pintxo potea eta ondoren karaokea

**Irailaren 26** 18:00etan Antiguoko Kofradia sortzeko bilera

**Irailaren 26** 19:00etan pintxo potea eta rap kontzertua

**Irailaren 27** 17:00etan Bilera Zabala

**Irailaren 28** 11:00tan Antiguoko aurreko gaztetxean (Xolot) egondako bi lagunak eskutik hitzaldia

|    |    |    |    |    |    |    |
|----|----|----|----|----|----|----|
|    |    |    |    |    |    | 1  |
| 2  | 3  | 4  | 5  | 6  | 7  | 8  |
| 9  | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 |
| 16 | 17 | 18 | 19 | 20 | 21 | 22 |
| 23 | 24 | 25 | 26 | 27 | 28 | 29 |
| 30 |    |    |    |    |    |    |

## **Unibertsitateko gazteekin kalejira**

Unibertsitateko jendea gaztetxera hurbiltzeko asmoz eta hauek gaztetxea ezagutzeko irailaren 19an kalejira bat antu-latu zen aulariotik gaztetxera. Esan beharra dago toki askotako jende desberdina elkartu ginela bertan kalejira polit bat sortuz, ondoren gaztetxean giro polit batekin jarraituz.

## **Xolot-i buruzko hitzaldia**

Dakigunez, Txantxerreka ez da izan Antiguu auzoan egon den gaztetxe bakarra, duela 30 urte inguru auzoko hainbat gaztek Xalot gaztetxea okupatu zuten. Aurreko esperientzia horretaz ikasteko eta ezagutzeko asmoz okupazio horretan parte hartu zuten bi kidek hitzaldi bat eman zuten gaztetxean irailaren 28an. Hitzaldi hau oso aberasgarria eta arrakastatsua izan zen denontzat, auzoko gazte dezente elkartu ginen bertan garai horretan zegoenaren eta gertatu zenaren inguruko jakin mina genuelako.

## **Bizikletak konpontzeko tailerra**

Bizikletak konpontzeko tailerrari dagokionez, txirindularitza munduan dauden auzoko bi gaztek tailer hau antolatu zuten, helburua norberak bere bizikletako matxurak bere kabuz konpontzea izanik.

Tailer honetan auzoko eta kanpotik etorritako 20 pertsona inguru elkartu ginen.




## URRIA

- Urriaren 3** 18:00etan Txalaparta tailerraren hasiera  
**Urriaren 3** 19:00etan pintxo potea eta 21:30etan Txikiren bakar-  
 rizketa  
**Urriaren 5** 17:00etan Donostiako Gaztetxe Mugimenduaren in-  
 guruko bideo emanaldia eta hitzaldia  
**Urriaren 6** 18:00etan Zine Kinkia: "El Pico 1"  
**Urriaren 9** 18:00etan "Un hombre Nuevo" dokumentala  
**Urriaren 10** Txalaparta Tailerra  
**Urriaren 11** 18:00etan Bilera Zabala  
**Urriaren 12** 17:00etan "Peligro Social" dokumentala  
**Urriaren 13** 18:00etan Zine Kinkia: "El Pico 2"  
**Urriaren 20** 18:00etan Zine Kinkia: "Yo, el Vaquilla"  
**Urriaren 27** 18:00etan Zine Kinkia: "Navajeros"  
**Urriaren 31** 18:30etan kontzentrazioa bulebarrean gunen au-  
 togestionatuen defentsan

|    |    |    |    |    |    |    |
|----|----|----|----|----|----|----|
|    | 1  | 2  | 3  | 4  | 5  | 6  |
| 7  | 8  | 9  | 10 | 11 | 12 | 13 |
| 14 | 15 | 16 | 17 | 18 | 19 | 20 |
| 21 | 22 | 23 | 24 | 25 | 26 | 27 |
| 28 | 29 | 30 | 31 |    |    |    |

## Zineforuma

Zine Forumari dagokionez, urriko igandeetan Zine Kinkia antolatu zen. Hala deitzen zaio 70 eta batez ere 80ko hamarkadan ezagun egin zen genero zinematografikori. Horrelako pelikuletan ohikoa da delitugile baten bizipenak kontatzea, orokorrean gazteak eta egindako delituengatik (gehienak drogarekin zerikusia zutenak) nolabaiteko izen bat irabazi dutenak. Kasu batzuetan, delitugile berak interpretatzen zuen pelikulako paper nagusia. Hori dela-eta, film nahiko biografikoak izaten ziren. Pertsonai gutxikoak, trama oso zentratukoak. Film ugari daude, baina Txantxarrekan egindako aukera hau da: El Pico, El Pico II, Yo, el Vaquilla eta Navajeros.



## Peligro social dokumentala

80ko hamarkadaren hasiera, emakume errebelde talde txo batek Bartzelonako kaleak hartu zituen buruan zuten iraultza punk-aren bidez egiteko. Modu honetan 40 urteko diktadura batetik irteten ari zen gizarte baten eskema kontserbadoreak lehertzeko.

Antiguotarra den Xabier Ortiz de Urbina da dokumentalaren egileetako bat eta bertan izan genuen ikusleen galderei erantzuteko.

20 bat pertsona izan ginen bertan eta bai dokumentala bai ondorengo eztabaida oso interesgarriak suertatu ziren.



## AZARO

**Azaroaren 6** 20:30etan Zineforuma: "Braindead"

**Azaroaren 9** 16:30 Gaztetxe desberdinen arteko mahai ingurua eta kontzertu akustikoa

**Azaroaren 8** Elikadura burujabetza eta kontsumo arduratsuari buruzko mahai ingurua.

**Azaroaren 13** 20:30etan Zineforuma: "The Evil Dead"

**Azaroaren 16** 11:00-13:00 Euskal Dantza Tailerra

**Azaroaren 17** Haurrentzako Tailerrak Auskalo Aisialdi Taldeak

**Azaroaren 20** 20:30etan Zineforuma: "The Toxic Avenger II"

**Azaroaren 24** 11:00-13:00 Euskal Dantza Tailerra

**Azaroaren 27** 20:30an Zineforuma: "Who killed Bambi?"

**Azaroaren 30** 11:00-13:00 Euskal Dantza Tailerra

|    |    |    |    |    |    |    |
|----|----|----|----|----|----|----|
|    |    |    |    | 1  | 2  | 3  |
| 4  | 5  | 6  | 7  | 8  | 9  | 10 |
| 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |
| 18 | 19 | 20 | 21 | 22 | 23 | 24 |
| 25 | 26 | 27 | 28 | 29 | 30 |    |



## Gaztetxeen arteko esperientzi trukaketa

Gaztetxea guretzat berria zenez, egokia iruditu zitzaigun Euskal Herriko beste gaztetxe batzuk gurera gonbidatzea eta denen artean mahai inguru bat egitea bakoitzak bere gaztetxe-ko planteamendua eta funtzionamendua azaltzeko.

Azaroak 9an Beasain, Zumaia, Bergara, Gasteiz, Gros eta Antiguako gaztetxe-ko kideak elkartu ginen elkarren artean solasaldi bat izateko. Euskal Herriko gaztetxe ezberdinen bi- zipenak ikusi eta ezagutu genituen: bai okupatutakoak, bai la- gapen bidez lortutakoak. Horren inguruko eztabaida planteatu zen, bakoitzak dituen aldeko eta kontrako kontuekin.



## Euskal dantza ikastaroak

Gaztetxe-ko eragile den Antiguotarrak Dantza Taldeak hiru asteburuz euskal dantza ikastaroak antolatu zituen gaz- tetxean larunbat goizetan. Lehenengo egunean 8 lagun ing- uru elkartu ginen arren, hurrengo bi asteburuetan 10-12 lagun elkartu ginen.

Honen helburua auzoko nahiz kanpoko jendeak euskal herriko dantzak ikastea izan zen, baina bereziki berbenetan dantzatzen diren dantza ohikoenak dantzatu zituzten: arin arin, fandango, zazpi jauzi, zortzikoa eta abar.



## ABENDUA

**Abenduaren 1** 14:00etan bazkaria gaztetxean eta 16:00etan denok egiara autogestioaren alde

**Abenduaren 11** 20:30an Zine Belikoa: "Apocalypse Now"

**Abenduaren 12** 19:00etan Donostiako Gazte Mugimenduari buruzko jardunaldia "Donostia nondik?"

**Abenduaren 13** Hilabete Internazionalistako azken jardunaldia: Països Catalans + Lunch+ Raperok

**Abenduaren 26** 18:00tean Biler Zabala

**Abenduaren 27** 11:00etan Euskal Dantza Tailerra

**Abenduaren 27** 21:30an kontzertu akustikoak: Iker Lauroba eta Physis versus Nomos

**Abenduaren 28** Gaztetxean Antiguako Jai Batzordeak antolatutako krosaren konsigna, partaideek arropak aldatu eta gauzak uzteko gunea.

**Abenduaren 31** Urte Zahar gaueko festa

|    |    |    |    |    |    |    |
|----|----|----|----|----|----|----|
|    |    |    |    |    |    | 1  |
| 2  | 3  | 4  | 5  | 6  | 7  | 8  |
| 9  | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 |
| 16 | 17 | 18 | 19 | 20 | 21 | 22 |
| 23 | 24 | 25 | 26 | 27 | 28 | 29 |
| 30 | 31 |    |    |    |    |    |



## Antiguoko Jaietako lehenengo krosa

Antiguoko Jai batzordeak Antiguoko Jaietako lehenengo krosa antolatu zuen eta hauek gaztetxeko eragile direnez, krosean parte hartzeko dortsalak gaztetxean jasotzeko aukera izan zen. Honekin lortu zena izan zen, parte hartu zuten guztiek gaztetxea ezagutzeko aukera izatea eta gaztetxea auzora zabaltzea. Horretaz gain, krosaren irteera gaztetxea kokatua dagoen heriz pasealekua izan zen. Beraz, honek garrantzi handia izan zuen gaztetxearentzat auzoan garrantzi handia duela adierazi nahi duelako.



## Hilabete internazionalista

Ernai Antiguok eta Askapenak antolatu zuten hilabete internazionalista. Jardunaldi hauen bitartez hainbat nazioen egoera politiko zein ekonomikoaren berri izateko baita horien inguruan eztabaidatzeko aukera ere.

Lehenik Internazionalismoaren kontzeptuaren hurbilketa eta mugimendura sarrera orokor bat egin zen. Ondoren, Donostiar brigadisten eta Sardoen esperientzien berri izan genuen eta azkenean Catalunyako prozesu subiranistari buruzko hitzaldia izan genuen Endavant-en eskutik. Hilabete internazionalistari amaiera emateko lunch-a eta rap kontzertua izan ziren azkeneko jardunaldiaren egun berean.

Esan beharra dago, hilabete internazionalistak harrera oso ona izan zuela eta hitzaldi guztiak oso jendetsuak eta interesgarriak izan zirela.



2014

## URTARRILA

**Urtarrilaren 4** 21:00etan kontzertuak: Perro Guijarro eta Radio-caster

**Urtarrilaren 16** 20:00etan bakarrizketa Jon Plazaolarekin (Antiguoko Jaiak)

**Urtarrilaren 23** "Conccertino para orgánico y palabro" antzerkia (Antiguoko Jaiak)

**Urtarrilaren 24** 20:30an kontzertuak: Antiguoko Warning taldea eta Arrasateko The Potes (Antiguoko Jaiak)

**Urtarrilaren 31** - 18:00etan Bilera Zabala

|    |    |    |    |    |    |    |
|----|----|----|----|----|----|----|
|    |    |    | 1  | 2  | 3  | 4  |
| 5  | 6  | 7  | 8  | 9  | 10 | 11 |
| 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 | 18 |
| 19 | 20 | 21 | 22 | 23 | 24 | 25 |
| 26 | 27 | 28 | 29 | 30 | 31 |    |

## Antiguoko Jaiak

Antiguoko Jai Batzordeak urtarilean antolatzen dituen jaiak lehenak izan ziren Txantxarrekan. Jaiak gero eta hobeak izatearren gaztetxetik ekarpena egin zen eta hiru ekintza antolatu ziren: bakarriketa, antzerki emanaldia eta kontzertua. Lehen ekintzarako Jon Plazaola aktore eta bakarlaria etorri zen eta bere umorearekin jaien lehen eguna modu apartan girotu zuen.

Beste biak bigarren astean izan ziren. Alde batetik, Pollo Rosa, Alquimia Fanzine eta Pequeño Payaso Dictador taldeek koproduzitzen duten "Concertino para orgánico y palabro" antzerkia; eta, bestetik, Warning eta The Potes taldeen kontzertua. Antzerkia benetan originala eta ezohikoa izan zen, hiru aktoreek abestu eta uneoro publikoa harritu baitzuten. Kontzertuan auzokide diren Warning eta The Potes arrasatearrek ostiral arratsalde euritsua alaitu zuten.

Jai Batzordea urtean zehar gaztetxean bildu zen 2014ko jaiak antolatzeko, eta une honetan 2015eko jaiak antolatzeko lehen bilarekin hasi da. Lagapena emanaz gero, jaiak beste leku bat izango dute ekintza eta egitasmo ezberdinak aurrera eramateko.



# OTSAILA

**Otsailaren 12** 19:30an zineforuma: "Videodrome"  
**Otsailaren 13** 18:00etan "Lenin: gaur eta hemen" solasaldia  
**Otsailaren 14** 18:00etan Biler Zabala  
**Otsailaren 19** 19:00etan Torturari buruzko hitzaldia  
**Otsailaren 19** 20:30an Zineforuma: "Los Idiotas"  
**Otsailaren 21** Kontzertuak: Moonlight melodies, White elephant, Radiocaster, Perro Guijarro  
**Otsailaren 22** 10:30an auzolana gaztetxea txukuntzeko  
**Otsailaren 22** 20:30an Jam Session  
**Otsailaren 26** 20:30an zineforuma: "El Almuerzo Desnudo"

|    |    |    |    |    |    |    |
|----|----|----|----|----|----|----|
|    |    |    |    |    | 1  | 2  |
| 3  | 4  | 5  | 6  | 7  | 8  | 9  |
| 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 |
| 17 | 18 | 19 | 20 | 21 | 22 | 23 |
| 24 | 25 | 26 | 27 | 28 |    |    |

## **Zineforuma**

“Lars Cron Bierg” deitu zioten ziklo honi antolatzaileak. Ez larritu, hitz joko bat besterik ez da. Bi zuzendari omentzeko asmoz (Lars von Trier danimarkarra eta David Cronenberg kanadiarra) antolatzaileak biek zuzendutako hainbat film proiektatu zituzten otsaila eta martxoko asteazken arratsaldetan.

### **“Videodrome”**

“Videodrome” David Cronenberg zuzendariak filmatutako pelikula kanadarra da. James Woods, Sonja Smiths eta Deborah Harryk protagonizatua.

Max Renn-ek (James Woods), kable bidezko telebista kanadiar txiki baten jabea, tortura sesio baten irudiak bereganatzen ditu. Nahiz eta hasiera batean seinalea Malasiatik zetorrela pentsatu, azkenean Pittsburgh-etik datozela ohartzen dira. Zertxobait inbestigatu ostean, esperimentu ugari direla jakiten du Maxek, eta ez seinale aislatuak. Zein helburu dute seinale horiek? Jendearen jokaera aldatzen dute, tartean Maxena: aluzinazioak, efektu oso arraroak...

Asteazken honetan, 15 gazte gerturatu ziren pelikula ikusi eta honen inguruko gogoeta eta kalakan egiteko.

### **Los idiotas**

Lars Von Trier danimarkarrak zuzendutako pelikulan, gazte talde batek interesa berbera du: ergelkeria. Landetxe baten inguruetan tentelkeria oinarri hartuta gazte taldeak gizarteare

aurka egiten du, eta horietako ekintza baten ostean Karen (neskato bakartia) batzen zaie. Zein da beraz, filmaren trama? Gizartearen loturetatik ihes egiteko gazte talde honek adimen urriko pertsona bezala jokatzearabaki dute.

Kasu honetan, 20 pertsona gerturatu ziren filma ikusi eta mahai inguruan parte hartzeko.

### **El almuerzo desnudo**

David Cronenberg kanadiarrak zuzendutako filma da. Bere emazteak izandako zorigaiztoko istripuaren ostean, idazle bat droga batzuekiko adikzioa sufritzen hasten da. Hauek kontsumitzearen ondorioz, aluzinazio jasangaitzak ditu eta unero amesgaizto kafkiano bat bizi du.

‘El almuerzo desnudo’ William S Burroughsen izen bereko nobelan dago oinarrituta, eta liburua bera idazlearen bizitzan. Guillermo Tell-en kondaira imitatzeko asmoz, bere emazteari urruntzeo eskatu zion. Honek sagar bat jarri zuen buruan, eta William-en helburua sagarra tiroz apurtzea zen. Zoritxarrez, ez zuen asmatu. Ekintza horrek, diotenez, piztu zuen Burroughsen idazle grina, dramak idazteko indarra eman omen zion.

Pelikula hau zineforum honetako hirugarrena izan zen, ‘Videodrome’ eta ‘Los idiotas’ filmen ostean eta 20 gazte gerturatu ziren ekintzan parte hartzera.

# MARTXOA

**Martxoaren 5** 20:30etan Zineforuma: Lars Von Tierren "El jefe de todo esto"

**Martxoaren 6** 17:00etan Jon Apalategiren eskutik "Marxismoa eta euskal nazio arazoa". Donostiako Eskola Gorriaren "Martxoa Langilea"

**Martxoaren 7** 20:30an Zineforum Morea: "Martxan: indarkeria matxisten aurrean feministak martxan" eta ondoren luntxa

**Martxoaren 10,17,24,31** 17:00-19:00 Argazkilaritza Tailerra

**Martxoaren 12** 20:30an "Scanners"

**Martxoaren 13** 18:00etan Donostiako Eskola Gorriaren "Martxoa Langilea"ren jardunaldietako bigarren hitzaldia. Fermintxo Santxez Agurruzaren eskutik Euskal Nazio Askapenerako Bihurguneak (Donostiako Eskola Gorria).

**Martxoaren 14** 18:00etan "Martxoa Langilea" Donostiako Eskola Gorriaren eskutik "Euskal Iraultza Sozialista ala Baskeria"

**Martxoaren 19** 20:30an Zineforuma: Lars Von Trier eta David Cronenberg zuzendariei eskainitako zikloaren azken filma: "Anticristo"

**Martxoaren 21** 18:00etan Bilera Zabala

**Martxoaren 22** 21:00etan Gure Esku Dago dinamikaren aldeko kontzertuak: antiguoko Txorroskilo eta arrasateko The Convicts

|    |    |    |    |    |    |    |
|----|----|----|----|----|----|----|
|    |    |    |    |    | 1  | 2  |
| 3  | 4  | 5  | 6  | 7  | 8  | 9  |
| 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 |
| 17 | 18 | 19 | 20 | 21 | 22 | 23 |
| 24 | 25 | 26 | 27 | 28 | 29 | 30 |
| 31 |    |    |    |    |    |    |



## Eskola gorria

Donostiako Eskola Gorriak antolatu zituen hitzaldiak, martxoaren 6an, martxoaren 13an eta martxoaren 14 ean eman ziren Txantxarrekan. Hauek, arratsaldeko 18etan hasten zirelarik eta eztabaidak irauten zuen arte egon ziren partaideak. Emandako hitzaldiak "martxoa langilea" jardunaldien barneko 3 hitzaldi izan ziren. Hurrenez hurren, Jon Apalategiren eskutik "Marxismoa eta euskal nazio arazoa", Fermintxo Santxez Aguruzaren eskutik Euskal Nazio Askapenerako Bihurguneak eta "Euskal Iraultza Sozialista ala Baskeria". Hitzaldietara 20 pertsona inguru azaldu ziren eta beren partaidetza handia izan zen. Hitzaldietan, hasieran hizlariaren esku geratzen zen gaiari buruz aritzen ziren eta gerora ikusleen iritzia entzun eta eztabaidatzen zuten.

## Argazkilaritza tailerra

Martxotik Ekainerarte Argazkilaritza tailerra izan genuen gaztetxean. Aurrez izena eman zuten 20 bat pertsonak hartu zuten parte astelehenero.



**Argazkilaritza Digitala**  
**- ikastaroa -**

- Txantxarreka Antiguoko gaztetxean.
- Astelehenero 17:00etatik 19:00tara.
- Martxoaren 10etik ekainaren 2ra arte.

[Izen-ematea martxoaren 7a baino lehen]

Izen-ematea eta info+: [argazkilaritza.ikastaroa@gmail.com](mailto:argazkilaritza.ikastaroa@gmail.com)

TXAN  
TXA  
RREKA

## APIRILA

**Apirilaren 1** Antiguako Talde feministaren bilera

**Apirilaren 5** GKK-ren Gipuzkoako Kongresua

**Apirilaren 7,14,21,28** Argazkilaritza tailerra

**Apirilaren 8** 19:00etan Antiguako Talde feministaren bilera

**Apirilaren 9** 18:00etan Euskal Herria Sozialismoaz ekimenak antolatuta hitzaldia: "Iraultza sozialistak ba al du lekurik XXI.mende-  
dean?"

**Apirilaren 11** 18:00etan Bilera zabala

**Apirilaren 11** 20:30an Perro Guijarro, Radiocaster eta Korkut kontzertuak

**Apirilaren 21** 20:30an Punk gaua: La URSS, Gaitze eta Anboters

**Apirilaren 24** - 20:00etan Joxean's Hil eben laburmetraia.

|    |    |    |    |    |    |    |
|----|----|----|----|----|----|----|
|    |    |    | 1  | 2  | 3  | 4  |
| 5  | 6  | 7  | 8  | 9  | 10 | 11 |
| 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 | 18 |
| 19 | 20 | 21 | 22 | 23 | 24 | 25 |
| 26 | 27 | 28 | 29 | 30 | 31 |    |



## Joxean's Hil eben

Zumalakarregi berpiztu ondoren, Jon Tomas eta Josu-Jon Tomas (Ataun Of The Dead-eko bi zientzialari karlistak), XIX. mendean hildako soldadu karlistak lurpetik atera eta berpizten hasten dira. Zonbi plaga honek Par-tidu Nazionalista Banpiroko kideen nagusigo politikoa eta biziraupena kolokan jarriko ditu, kinka honetatik ateratzeko modurik onena Agirre lehendakaria esnatzea dela erabakiko dutelarik. Ondorioz Zumalakarregi eta Agirreren arteko norgehiagoka bat hasiko da, lehendakari unionista Erkidego Autonomoko agintaritzatik kendu ondoren Erkidegoan ez ezik Euskal Herri osoan nork aginduko duen erabakitzeko. Laburmetraia ikustera 30 pertsona inguru gerturatu ziren, giro polita egon zen eta jendea oso gustura joan zen ikusitako laburmetraiarekin. Gainera, "Iraultza sozialistak ba al du lekurik XXI.mendean?" nahiz eta pertsona ugari ez bildu (15 inguru) eztabaidan sakonak eman ziren.



## MAIATZA

**Maiatzaren 2** Kapitalismoa Akatu kontzertuak

**Maiatzaren 5,12,19,26** Argazkilaritza tailerra

**Maiatzaren 11** Auskaloko jokoak 11etatik 13etara (20 bat haur bildu ziren Txantxarrekan Auskalo Aisialdi Taldeak antolatutako jokoetara)

**Maiatzaren 20** "Pa'lante Venezuela", Askapenak antolatuta Venezuelako bost brigadisten hitzaldia.

**Maiatzaren 22** Ernaik antolatua "Eskuin muturraren gorakada Europan" hitzaldia 19tan.

**Maiatzaren 29** Jakintza Ikastolaren 50. urteurrena hitzaldia 19etan

|    |    |    |    |    |    |    |
|----|----|----|----|----|----|----|
|    |    |    | 1  | 2  | 3  | 4  |
| 5  | 6  | 7  | 8  | 9  | 10 | 11 |
| 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 | 18 |
| 19 | 20 | 21 | 22 | 23 | 24 | 25 |
| 26 | 27 | 28 | 29 | 30 | 31 |    |

### **“Pa’lante Venezuela”**

Azken urteetan Venezuelara brigadak antolatu ostean, oraingoan Askapena-k bertara joan diren brigadisten esperientzia ekartzea erabaki zuen. Horrela, Venezuelako egoera bertatik bertara ezagutu zuten herri mugimenduko hainbat kideren esperientzia lehen eskutik ezagutzeko aukera eskaini zen Txantxarrekan.

15 egunetan zehar, Askapenaren laguntzaz eta Herri Mugimenduko eragileen parte hartzearekin, herri mugimenduan aktiboki lan egiten duten Venezuelako 5 brigadistaren bisita izan genuen Euskal Herrian eta ohore handia izan zen geldialdia egin izana gurean.



## EKAINA

**Ekainaren 1** Jakintza 50. urteurrena Kontzertu akustikoak

**Ekainaren 7** Jakintza 50. urteurrena kontzertuak 21etan--> Arto 2xar+Txorroskilo+ Zartzuela.

**Ekainaren 7** Antiguako VI. futbito txapelketa

**Ekainaren 27** 17:00tean Bilera Zabala

1

2 3 4 5 6 7 8

9 10 11 12 13 14 15

16 17 18 19 20 21 22

23 24 25 26 27 28 29

30

## VI. Antiguoko futbito txapelketa

Azken 5 urteetan egin dugun bezela, aurtengo ekainean ere Antiguako Futbito Txapelketa antolatu genuen auzoko frontoian. Urtero legez, harrera bikaina izan zuen Donostiar askoren artean eta 200 gazte inguruk parte hartu zuten txapelketan. Giro ederrean izerdi pixka bat botatzeko aukera bikaina izan zen.

Hona hemen aurtengo garaileak, Santo Tomas Lizeoan ibilitako Galatasaray taldea:



## Jakintza 50 urte

Ekainarekin batera, auzoan kokatuta dagoen Jakintza ikastolaren sorreraren 50.urteurrena ospatu zen. Gaztetxearen dinamikan sartuta dabiltzan gazte gehienak Jakintza ikastolan ibilitakoak izanik, eta auzoko bi erreferente lotzeko asmoz, ekintza bateraturen bat antolatzea zen helburua.

Bi kontzertuz gozatu ahal izan genuen aurrez aipatutako ospakizunen harira. Ekainaren 1ean, ikastolatik pasatako neska-mutilen eskutik kontzertu akustikoa izan genuen; eta ekainaren 7an beste kontzertu bat Artobixar, Txorroskilo eta Zarzuela taldeen eskutik. Txorroskilo taldeko gazteak Antiguo auzotik datozen bitartean, Usurbil aldekoak dira Artobixar.

50 bat lagun elkartu ziren hala ekainaren 1eko nola ekainaren 7ko kontzertuetaz gozatzeko; eta hona hemen Txorroskilo taldeak eskainitako saioaren argazki pare bat.



## UZTAILA

**Uztailaren 2** Zineforuma 21:30etan El Odio  
**Uztailaren 11** afari-merienda 20tan  
**Uztailaren 14** Kirol eguna antolatzekeo bilera.  
**Uztailaren 15** Mojito gaua  
**Uztailaren 16** Zineforuma 21:30etan Diario de una motocicleta  
**Uztailaren 18** Mural diseinua bidaltzeko azken eguna.  
**Uztailaren 21-22-23** Dantza ikastaroa 19tan  
**Uztailaren 22** Bigarren eskuko merkatua arratsaldean.  
**Uztailaren 23** Zineforuma 21:30etan  
**Uztailaren 26** Kirol eguna  
**Uztailaren 29** kamixetak tintatu  
**Uztailaren 30** Kontzertua (2€) Accidente eta Las Tuerkas 21:30etan.

|    |    |    |    |    |    |    |
|----|----|----|----|----|----|----|
|    | 1  | 2  | 3  | 4  | 5  | 6  |
| 7  | 8  | 9  | 10 | 11 | 12 | 13 |
| 14 | 15 | 16 | 17 | 18 | 19 | 20 |
| 21 | 22 | 23 | 24 | 25 | 26 | 27 |
| 28 | 29 | 30 | 31 |    |    |    |



## Afari merienda

Berrogei bat lagun bildu ginen bertan, eta denon artean gaztetxearen egoeraz hitz egin ostean, uztaila amaiera eta abuztu hasierako programazioa izango zena adostu genuen.

## Bigarren eskuko merkatua

Uztailaren 22ko bigarren eskuko merkatuan 10 lagun inguruk euren etxean soberan zituzten arropa, jostailu, liburu eta abarrak eraman zituzten, eta trukea zein erosketaren bitartez saldu edo aldatu. Interesgarria izan zen oso batzuentzat baliorik jada ez duten gauzak beste askorentzat baliagarri izan daitezkeela egiaztatzea.

## Zineforuma

Horrez gain, Zineforumeko hiru proiektzio egin ziren uztailean, El Odio 2an, 16an Diario de una motocicleta eta 23an También la Lluvia. Azken bi pelikulatan Gael Garcia Bernal argentinarra aktore lanetan dabil. 16an zein 23an 20 bat lagun bildu ginen gaztetxean. Filma ikusten ez ezik, ondorengo tertulietan ere jende askok hartu zuen parte, eta eztabaida sakon bezain luzeak sortu ziren filmen aitzakian.

## Mojito gauda

Azkenik, mojito gauda ere egun seinalatua izan zen, beste behin ere 40 bat lagun bildu baikin Txantxarrekan. 3 laguneko 12 taldek hartu zuten parte guztira, eta orotariko mojitoak atera ziren. Denok, moderatuki, probatu ostean, irabazleak hautatu genituen talde guztiek bozkatura.





## ABUZZTUA

**Abuztuaren 1** Pablo Hasel hitzaldia 18tan eta kontzertua (5€)  
19:30tan. BERTAN BEHERA

**Abuztuaren 14** bizifesta kontzertua

**Abuztuaren 23** Urteurren bazkaria

**Abuztuaren 28** Mendi irteera Adarrara

|    |    |    |    |    |    |    |
|----|----|----|----|----|----|----|
|    |    |    |    | 1  | 2  | 3  |
| 4  | 5  | 6  | 7  | 8  | 9  | 10 |
| 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |
| 18 | 19 | 20 | 21 | 22 | 23 | 24 |
| 25 | 26 | 27 | 28 | 29 | 30 | 31 |

## Bizifesta eta kontzertua

Donostiako Aste Nagusi pirata aurten portutik beste hainbat guneetara zabaldu da. Aingura kofradiak antolatu duen BiziFestak geldialdia izango du Txantxarrekan. Bertan, MMá-tarren emanaldia patxadaz entzutea eta bertako produktuekin egindako luntxa eskainiko dira Filibusteroak eta Antiguaotarrak kontsumo taldearen laguntzaz.

Helburua kontsumo arduratsuen inguruan hausnartzea da izan ere askotan. Hau da aldarrikatu zena: "Piratok ur eta aire garbia maite dugu. Piratok aske mugitzea maite dugu. Piratoi ez zaigu galipota gustatzen eta inperioen fragatak baino beldurgarriagoak zaizkigu petroleontziak. Horregatik Aste Nagusi Piratarak lehorreratzean bizikletan ibiltzen gara eta ulergaitzak zaizkigu ataskoak edo pertsona bakar bat mugitzeko bi tonetako tramankuloak behar izatea. Horregatik ere poz handia hartzen dugu bidegorrietan hara eta hona dabiltzan herrikideak gero eta gehiago direla ikusita edo badirela errepi-deetan geure antzera, barku txikian ontzizarren artean, kutsadurari espazioak lapurtzen dizkoten pirata bizikleteroak.

Bizikleta zaleak gara bai eta hori bezainbeste (ala gehiago) festazaleak gara eta horixe Bizifestaren arrazoia. Bizikletari festarik festa gorazarrea egingo diogu.

Seguru egun horretan gogoan izango ditugula bizikletan ibiltzea debekatua zuten emakumeak, bizikletan mugitu ahal izateak patriarkadoaren arauetatik aske egiten zituelako. Seguru ere Lemoizen aurkako bizikleta martxak etorriko zaizkigula gogora arrotasunez baina ahaztu gabe gurekin bizikletan hiria

abordatzera etorriko ziren Gladys del Estal eta mundu zuzen eta garbi baten alde borrokatzeagatik bizitza lapurtu dizkieten lagunak.

Jende berria gaztetxera gerturatzea azpimarratzekoa izan da, oso jendetsua eta giro bikaina.



# IRAILA

**Irailaren 13** Gau beganoa

**Irailaren 19** Punk Gaua II.

**Irailaren 27** Zinemaldi alternatiboa: The Segovia Big Bang

|    |    |    |    |    |    |    |
|----|----|----|----|----|----|----|
| 1  | 2  | 3  | 4  | 5  | 6  | 7  |
| 8  | 9  | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 |
| 15 | 16 | 17 | 18 | 19 | 20 | 21 |
| 22 | 23 | 24 | 25 | 26 | 27 | 28 |
| 29 | 30 |    |    |    |    |    |

## Gau Beganoa

Arratsaldeko 19etan Xabier Ortiz de Urbinak egindako azken dokumentala, '¿Cómo que cómo como?', proiektatua izan zen eta 30 minutu horien ostean kolokio-debatea dokumentaleko zuzendari eta protagonistetako batekin egin zen. Azkenik, gaua borobiltzeko, Askeintzako lagunen eskutik degustazio beganoa.

¿Cómo que cómo como? dokumentala Xabier Ortiz de Urbinak zuzendu eta produzitu du (aurreko batean Peligro Social dokumentala ere ekarri zuen), eta bertan azaltzen diren 'aktoreak' Eneko Pérez, Matias Rodrigues eta Lide Treku dira.

Beganoen inguruan informazio gutxi jakin ohi da, beraz, jardunaldi hau oso positiboa izan zen haien ohiturak eta filosofia zabaltzeko. Gai oso interesgarriak eztabaidatu ziren iritzi desberdinak bilduz.



## Zinemaldi alternatiboa

Donostiako Zinemaldia 2006. urtean sortu zen, Parte Zaharreko Gazte Asanbladaren eskutik. Ordukoan, auzo hartako hainbat lokaletan, beste horrenbeste filma izan ziren ikusgai. Denak doakoak eta gogoeta soziopolitikoak piztea helburu zutenak. Hainbat urtez ospatu gabe igaro ondoren, jaialdia Kortxoenean antolatzen eta ospatzen hasi zen eta hala izan da 2010. urtetik gaur arte.

Aurten jaialdia hiriko beste espazio eta proiektu autogestionatu ezberdinetan antolatzea erabaki da hauen ezagutza zabaltzeko eta jende berria erakartzeko. Proiektu eta espazio ezberdinen arteko harreman sarea indartzeko eta donostiarrei

hauen ateak zabaltzeko aukera aparta da. Eta Kortxoeneak bat egiten du ahalegin honekin, antolaketaren parte jarraituz.

Aurten bi saioa antolatu dira Zinemaldi Alternatiboaren egitarauaren baitan eta, bigarrena, Txantxarrekan. "Segovia Big Band" dokumentala proiektatua izan da, eta Gemma Serahima Mackay zuzendariarekin solasaldia izango zen jarraian, Kataluniatik Donostiara espreski etorria. Dokumentalak Segoviako kartzelako ihesaldi entzutetsuan protagonista izan ziren lagunek urtero ospatzen duten bazkari edo enkontrua du hari nagusi. Ihesean parte hartu zuten hainbat protagonista urbildu ziren gaztetxera eta haien esperientziaren berri eman zuten. Oso jardunaldi interesgarria, urbildu zirenak oso pozik eta adin ezberdinen artekoen artean gai ezberdinak eztabaidatzea lortu zen.



### 3. BALORAZIOA

2013an ekin zion bere bideari Txantxarrekek. Urteetan ikusitako behar bat asetzeko helburuarekin bertako gazteok martxan jarritako prozesuaren emaitza izan zen. Urtebete beranduago, are argiago dugu auzoak premia berdinak dituela: aisialdi alternatiborako bilgunea beharrezkoa da Antiguon, auzoko eragile eta norbanakoek egitasmo eta proiektuak aurrera eramateko eraikin bat behar dute. Are gehiago, eraikinak duen erabilera berriari esker proiektu eta egitasmo berriak jaio dira. Hainbat arrazoik nabarmendu digute esandakoa.

Lehenik eta behin, bigarren puntuak argi utzi duen bezala egitaraua jarraitua izan da. 2013ko abuztu amaieratik hasita 2014ko iraila arte —memoria honek denbora tarte hori soilik izan du kontuan— hainbat egitasmo eraman dira aurrera, eta, ia kasu guztietan, Txantxarreka egon ez balitz ezin izango lirateke antolatu. Alde batetik, hainbat eragilek euren eguneroko dinamika antolatzeke beharrezkoak diren bilerak eta, bestetik, eragile horiek edo norbanakoek proposatutako tailer, ekintza, etab. egin ahal izan dituzte.

Bigarrenik, eraikina erabili ahal izateak hainbat eragile hurbildu ditu gaztetxearen eguneroko bizitzara: Auskalo Astialdi Taldea, Antiguoko Gazteak, Antiguoko Jai Batzordea, Antiguotarrak Dantza Taldea, Ernai Antiguoa, GKK, Luberriko ikasle abertzaleak, Antiguoko Feministak eta Antiguoko Filibusteroak Kofradia. Horretaz gain, Donostia mailako beste hainbat taldek ere erabili dute euren bilerak egiteko: Eskifaia eta Aingura ko-

fradiak, edo Podemos Ahal-Dugu alderdiaren Antiguako taldeak esaterako. Ezberdinen batasun honek gainera sinergiak sortu ditu. Askotan norbanakoek ez dute behar adina baliabide buruan duten ekintza aurrera eramateko. Barne-antolakuntzari eta egiten ditugun bilera zabalei esker, gabezia horiek beste batzuen materialarekin konpondu dira. Hainbat dokumental, zineforum, etab. proiektatzeko asmoa zegoen. Proiektorea lortzearekin batera arazoa konpondu eta egitasmoak aurrera eraman ahal izan dira.

Are gehiago, batasun horren ondorioz elkarlana eman ahal izan da. Esaterako, Emaus, Antiguotarrak, Saretuz, Movimento dos Pequenos Agricultores eta Justicia Alimentaria Global taldeekin azaroaren 8an antolatutakoa. Guztion artean elikadura burujabetzaren inguruko hausnarketa bultzatu zen, auzoan bestelako elikatze bideak lortzeko asmoz, Brasilgo Movimento dos Pequenos Agricultores taldeko Luiz Carlos Souza eta Emauseko kideak izan genituen gurean. Beste gauza askoren artean komunitatearen garrantzia azpimarratu zen, baita pauso txikiekin hasten dela bidea ere. Beste elkarlan adibide polit bat Venezuelako brigadistekin eman zen. Urtetan Askapena taldeak bertara brigadak antolatu ostean, Venezuelako bost brigadisten esperientzia lehen eskutik ezagutzeko aukera eskaini zigun. Eta, azkenik, Kortxoenea, Aingura eta Filibusteroen Kofradiarekin batera BiziFesta antolatu genuen Piraten Aste Nagusiko ekitaldiaren barnean.


Illo horretatik, talde pluraltasun horrek argi uzten du adin ezberdinetako taldeak, eta, batez ere, publiko ezberdina duten taldeak dabiltzala ekintzak antolatzen Txantxarrekan: haur eta gazteentzako jokoak antolatu dituen Auskalo Aisialdi Talde-tik hasita interesa duen ororentzat ikastaro intentsiboak antolatu dituen Antiguotarrak Dantza Taldera. Egia da erabiltzaileen gehiengoa gaztea dela, baina edonork erabiltzeko bilgunea da. Proiektuaren filosofiarekin bat datorren egitasmo orok at-eak irekiak izan ditu eta izango ditu etorkizunean. Esandakoaz gain, argi uzten dute beste hainbat proiektuk: udan egin duen eguraldi txarra dela-eta, goizean antolatutako taldeek Txantxarreka erabili dute 'B plan' bezala, eguraldi txarra eginez gero bertara joan zitezkeela bai baitzekiten. Era berean, auzoko ikastolako guraso batzuek eskolaz kanpoko ekintzak eraikinean antolatzeko asmoa erakutsi dute.

Eta hori dena, gainera autofinantzaketa oinarri izanda. Hau da, eguneko gastuak eta iristen diren fakturak ordaintzeko diru-iturriak bilatu ditugu. Norbanakoek botatako ideietatik, aipatutako ekintzetan ateratako dirutik, kamisetak salduz, etab. Txantxarreka gerturatutako norbanakoek ekarritako materialekin (aulki, mahai, pintura, liburu, sofa, etab.) txukundu genuen etxea bere garaian eta filosofia berarekin jarraitzen dugu.

Laburtzearren, Txantxarreka bitartez Antiguoko norbanakoek eta eragileek euren egitasmoak aurrera eraman eta beharrak asetzeko lekua dute.



## 4. ERANSKINAK





# ETORKIZUNIK?

TOKIAN TOKIKO ALTERNATIBAK SORTZEN  
ELIKADURA BURUJABETZA AUZOLANA  
KONTSUMO ARDURATSUA ANTIGUAN  
**mahai ingurua**



2013/11/08 OSTIRALA TXANTXAERREKA GAZTETXEAN 18:30

INFO+: [antiguaotarrak.blogspot.com](http://antiguaotarrak.blogspot.com)

## HILABETE INTERNAZIONALISTA

TXANTXAERREKA GAZTETXEAN (Antiguan)  
hitzaldia, **Abenduak 5, 19tan:**



# SARDINIA








Ekainak  
7

Antiguoko VI.  
Futbito txapelketa

Izen ematea:  
20 euro taldeko  
Platero eta Trikuharrin









LEHEN HEMEN  
**GAZTETXEAK**  
 HAN ORAIN

**IRAILAK 28, 11:00:**  
 Antiguoko Xolot Gaztetxea  
 okupatu zuteneko hiltzaldia  
 eta mahaingurua.

**URRIAK 5, 17:00:**  
 Donostiako Gaztetxe  
 mugimenduaren bilakaera.  
 Hitzaldia + bideoa.

**URRIAK 19, 17:00:**  
 Euskal Herriko gaztetxe  
 desberdinen arteko  
 esperientzia trukaketa.

ANTIGUOKO GAZTEAK



**ASTEKO PLANGINTZA**  
**TXANTXARREKA GAZTETXEA**  
 13/12/09 - 13/12/15

**TXAN TXA RREKA**  
 Gaztetxea

**ASTEAZKENA 19:30tan:** Tai batzordeko bilera

**ASTEAZKENA 20:30tan:** Zine forum-a. ZINE  
 BELIKOA. APOCALYPSE NOW pelikula.

**OSTEGUNA 19:00tan:** Donostiako gazte  
 mugimendua indartzeko bigarren jardunaldia.

**OSTIRALA 17:00tan:** Bilera zabala

**OSTIRALA 19:00tan:** Hilabete internazionalistako  
 azken jardunaldia. Paisos Catalans + lunch +  
 raperoak



## MASAI TRUKEA

Masaiaren inguruan gure ezagutzak elkartrukatzeko gunea.  
Ekarpen guztiak ongi etorriak dira.  
Eta alor hauetako jakintzarik ez baduzu, etorri ikasi eta disfrutatzera!!!



## GAU BEGANDOA

LARUNBATA, IRAILAREN 13AN ANTIGUOKO GAZTETXEAN

19:00 KÓMO QUE CÓMO COMOP DOKUMENTALA  
ZUZENDARI ETA PROTAGONISTETAKO BATEKIN  
20:00 KOLOKIO-EZTABAIDA  
21:00 AFARI BEGANDOA  
ENPANADAK, PATATA TORILLA, FALLAFELLA, KEBABA...

Prezioa: 5 euro (bertan)

Izena emateko: [liberacion.askekintza@gmail.com](mailto:liberacion.askekintza@gmail.com)

ASKEKINTZA  
LIBERACCION



HERIZ PASEALEKUA, 22, ANTIGUO (DONOSTIA)

Abuztuak  
**23**  
**TXANTXARREKAren**  
**URTEURREN FESTA**  
*Urte berez auzoa kolorez janzten*



**12 30**  
DO TA KE TXARANGA  
(GASKUINATIK)

**14 30**  
BAZKARIA  
GAZTETXEAN

**18 00**  
WARNING  
TXUSTA TA BORJA

Sanrerak Trikuhami eta Plateron 6 eurotan

[www.txantxarreka.net](http://www.txantxarreka.net)

**HILABETE INTERNAZIONALISTA**

**TXANTXARREKA GAZTETXEAN** (Antiguan)  
hitzaldia, **Abenduak 13, 19tan:**

**PAÏSOS CATALANS**  
**+ JAIALDIA**








@Txantxarreka



[www.txantxarreka.net](http://www.txantxarreka.net)



Txantxarreka gaztetxea



[txantxarreka@txantxarreka.net](mailto:txantxarreka@txantxarreka.net)

